

Txuletaren kofradiaren alde

Atzo zabaldu zen, Aldazko Martintxotenan, Nafarroako sagardotegietako txotx garaia

Zenbait hasi ziren azkenean txuletaren kofradia-eta osatu beharra zegoela, horrelakorik ez zegoela Euskal Herri osoan eta okel puska horiek —goxogoxoak, primeran erreta eta gatz puntua espeziala zutenak— behar zutela horrelako omenaldi txikia, eta izan zen estatutu eta guzti prestatzen hasi zen baten bat, baina orduan etorri zen hainbeste altxatzeagatik bakailao tortilla ia probatu ez zuen bizarria eta oihukatu zuen berriro txotx!, eta hara joan zen mahai osoa atzera eskaileretatik behera nonbait Hernanikoa zen upelera, eta inorerori ez bazen ez zen izan jendearen trebezia bereziarengatik baina zorrea, zorte hutsa, zeren eskailerak Berueteko malda ematen zuen helduleku txiki horrekin eta maila aldrebestu eta higatu arriskutsu horiekin.

Behean hotz egiten zuen gainera, eta «horrela ez duk ba fresko egongo!» esan zion Mindegiak Larretxeari, zeren atzo aizkolariak zeuden batzuk Aldazko Martintxonea sagardotegian txotx garaia hasteko ekitaldian, eta aizkolariak ez ezik Osasunako jokalarikoadrila eta pilotariak eta artista batzuk ere bai. Jende gehiena iritsi zenerako, Inaxio Begiristain nagusiak irekia zuen jada upel gogokoa, Larraun izena duena, Marta Mendia altuera-jauzilariarekin ireki ere, zeren hemen, Nafarroan, ez da Astigarragan-eta bezala, izugarriko jendetza eta sekulako gertakaria, baina lagunen artean ospakizuna eā jendea ohituratzen den, batez ere, Inaxiok esaten duen bezala, «ez bakarrik txotx garaian, baina gero jendeak har dezan sagardoa botilan».

Nafarroako sagardotegien laugarren irekialdia

Atzokoa zen Nafarroako sagardotegiek egiten duten laugarren irekialdia, Lekarozko Larralde, Lekunberriko Toki Alai eta Berueteko Txaseneko Bordarenaren ondotik, eta laster bosgarrena irekiko dute Berueten bertan, Euskal Herriko sagardotegirik altuena izango dena, gainera.

Kofradiarena azkenean ez zen atera, baina, egia esanda, merezi zuen omenaldi bat egitea, ez bakarrik okelari baina



JOXE LACALLE

Jende andana bildu zen Martintxotenan. Beheko irudian, eskuinean, Nagore, Esain eta Armendariz pilotariak.

Sagardogileen elkarte

■ ■ ■ Laster bosgarren sagardotegia irekiko da Berueten, Euskal Herriko sagardotegirik garaiena izango dena, gainera, eta sagardogileen elkarte antolatu nahi dute

tortillari, gaztari eta intxaurrei eta Larraun sagardoari, zeren besteak txepel samarturik iruditu zitzaizkien batzuei, baina izango da hain segur hasi berria delako denboraldia eta, gainera, hemen

beti beranduago irakiten delako sagar zukua. Hurrengo urtean, bost sagardogile jada, egin nahi dute elkarte denen artean gauzak bultzatzeko eta baita bertako sagardiak ere hobeto zaintzeko, aurtan

Martitxonean 700 litroko upel ttikia baino ez dutelako bete Berueteko sagardiekin, eta gainera hori mikatza da, nahastu beharra dago Normaldiakoa eta Galiziakoa eta Hernaniko sagarrarekin.

Atzo Larraun zen onena, baina Aritz eta Lizartza upelak ere ezin esan txarrak zeudela. Mikatz gutxi akaso. Denbora pixka batekin eta Berueten mimo handiz zaintzen ari diren sagardiekin...

Alberto Barandiaran
ALDATZ